

TESTULIBURUEN ETA CURRICULUM- MATERIALEN KUDEAKETA SOLIDARIOA EGITEKO PROGRAMA (LEHEN HEZKUNTZA).

Orain dela urte batzuk testuliburuak eta Curriculum-materialen kudeaketa solidarioa egiteko programa martxan jarri zen Lehen Hezkuntzan.

Programa honetan berrerabil daitezkeen ikasmaterialak eta testuliburuak Hezkuntza Administrazioarenak dira, eta, ikasturtea amaitzen denean, eskolan bertan geratuko dira geroko ikasleek erabil ditzaten.

ERABILTZeko ARAUTegIA:

- Testuliburuak eta ikasmaterialak tutoreek bananduko dituzte ikasleen artean ikasturte hasieran.
Banaketa zozketaren bidez egingo dute ikasleen aurrean (liburuekin loteak egingo dira). Ondoren ikasle bakoitzak bere liburuak forratuko ditu eta izen-abizenak jarriko ditu forro gainean.
- Kurtso hasieran arlo bakoitzeko irakasleek testuliburuak aztertuko dute. Berrikusketa maiztasunez egingo dute egoera egokian daudela egiaztatzeko.
- Ikasturte hasieran tutoreak bere ikasleei azalduko die testuliburuak eta ikasmaterialak erabiltzeko arautegia.
- Ezin da idatzi, marraztu, azpimarratu eta inolako markarik liburuetan egin (1. ziklokoetan izan ezik).
- Testuliburuak eta ikasmaterialak egoera egokian bueltatu behar dira ikasturte amaieran. Norbaitek liburuaren bat galduko bazuen edota erabilpen desegokiagaitik testuliburuak eta ikasmaterialak egoera txarrean bueltatuko baziren, ikasle horren gurasoek edo tutore legalak ordaindu beharko zituzten.
- Ikasturte amaieran arlo bakoitzeko irakasleek testuliburuak aztertuko dituzte egoera egokian daudela egiaztatzeko.
- Ikastetxez aldatzen diren ikasleek eskolan utzi beharko dituzte testuliburuak eta ikasmaterialak.